



BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure bezeroak gurekin harremanean edo kontaktuan egoteko, sortutako web gunearen barruan sail bat egongo da, hor telefono zenbakia, korreo helbide (envasesjhonson@gmail.com) bat eta denda baten kokapena egongo da. Bidalitako paketearekin arazoren bat baldin badago, adibidez, heltzeko epearekin zerikusia duena lehen esandako informazioaren bidez kontaktuan jarriko dira gurekin gure bezeroak. Fabrikazio akats bat baldin badu, gu ardura hartuko dugu eta beste produktu berri bat bidaliko diogu.

Bezeroak dituen kezka argitzeko gure web orriari atal bat agertuko da, "Zalantzak" deitutakoa. Atal horretan bezeroak egindako galdera ohikoenak agertuko dira eta haien erantzunak ere. Bezeroaren galderaren bat ez baldin badago atal horretan azpi atal bat agertuko da galdera berria idazteko aukera izango du. Bezeroa produktua erosi ondoren, honen jarraipena egiteko, kode bat emango zaio. Kode hori web orriaren "Produktua" sailean sartuz gero zuk erositako produktuaren jarraipena ikusi ahalko duzu.

Erositakoa bueltatu nahi badute, aukera izango du. Baina, irizpide batzuk egongo dira. Lehenik email-en bidez produktuaren kexa edo akatsa azaldu beharko du. Ondoren, akats bat baldin badago produktuaren argazki bat bidali beharko dute. Mekanismoaren akats bat

baldin bada, web gunean jarritako kokapenera eraman beharko da eta han dagoen langilearekin hitz egin. Horrek arduratuko da bezero hori ondo asetzeaz.

Envases Jhonsonen bazkide izan nahi baldin baduzu, doainik den atal batean izenpetu ahal zara. Horrek ahalbidenduko du bazkidea bere erosketetan beherapenak izatea eta baita ere opariak. Izenpetu egiten bazara, web orrialdean beherapenak baldin badaude honek jakinarazi egingo ditu.

Gure web gunearen bazkide baldin bazara, gure produktuetan eskusibitatea lortzeko aukera izango duzu. Adibidez, enpresa batek haren langileei opari bat egin nahi badiete, aukera izango dute gure produktuetan haien izena eta kolore berriak jartzea.

Web orria izateaz gain, gure instagram propioa izango dugu (_envasesjhonson). Horretan ere, produktuen informazioa ipiniko dugu, beherapenen berri emango dugu eta gainera argazkietan klikatzearekin bakarrik erosi ahalko duzu gure produktua. Gainera, hainbat hashtag erabiliko ditugu, #plastikorikez, #envasesjhonson ...